

Martutene - Loiola



2002-2003 denboraldian Erregionaleko Lehen Mailara igo zen taldea.

Martutene futbol taldea indartsu

Martutene futbol taldeak egundoko denboraldi hasiera egin du. Bederatzi partida jokatu ondoren, Erregionaleko Lehen Mailako bigarren postuan dago.

Martutene futbol taldeak gogotsu hasi du denboraldia. Jokaturako futbol partidetatik bakarria galdu taldeak. Horregatik, bigarren postuan sailkatua dago, Alle-rru futbol taldearen atzetik.

Martutenek lau fitxaketa egin ditu aurtengo denboraldirako, eta horrek taldea indartu du. "Jende jatorra eta langileak da. Denboraldi hasiera honen gakoa aldageletako giro ona dela uste dut", esan digu Jose Yaben Martutene futbol taldeko presidentek.

Harrobia oinarri

Duela bost urte sortu zuten Martuteneko Erregionaleko

taldea. "Jubeniletan jokalar asko eta onak izaten genituen. Baina maila horretan bi urte eman eta gero, futboleant jarritzeko talderik gabe gertzen ziren jokalar horiek, eta futboleant jokatzeari uzten zioten. Horregatik, Erregional Mailako taldea sortzea erabaki genuen", esan digu.

Martutene futbol taldearen filosofiaren oinarria harrobia da. "Erregionaleko taldean jokatzen duten jokalarien %80 Martuteneko beheko taldeetatik datoz", esan digu Yabenek. "Taldea gure jokalariekin mantendu nahi dugu. Ez litzai-guke gustatuko taldeko jokalar gehienak kanpotarrak izatea", gehitu du.

Denboraldia luzea dela badakite, baina taldea lehen postuetan sailkatuta egoteak itxaropena sortu du. "Taldea guztiok irabaztea eta punta-puntan ibiltzea nahi dugu. Hala ere, Erregional Maila Nagusira igotzea ez da gure helburu nagusia. Garrantzitsuena jokalariek gustura aritzea da".

Emakumearen Astea

Hilaren 22tik 26ra bitartean, Esmatu Loiolako Emakume Elkarteak antolatuta, Emakumearen Astea egingo da kultur etxean. Hilaren 22an, astelehena, aurkezpena egingo dute. Ondoren, Landare eta Literatur Lehiaketan sari banaketa egingo da, eta Noni DJ loiolatarrak aritko da. Asteartean, familia barruko bontzikeria buruz hitzaldia izango da. Hurrengo egunean, asteazkenean, areto-dantza erakustaldia izango da. Ostegunean, Kolore Antzerki Taldeak "Tardes de plata" obra antzeztuko du. Aurkezpen ekitaldia 19:00etan hasiko da, eta gainerako egunetako ekitaldiak 19:30ean. Azkenik, ostiralean, Irudina jatekxan afitaria egingo da. Afitari joan nahi dutenek 943 453104 telefono zenbakira deitu behar dute.

euskararen donostia

g a r t o n a l u a



Donostia Hiriko Auzolaguntza

Antzerkia kalean

- **Bulling-a Hizlaria: Garbino Arrizabalaga** (Baikara Gipuzkoako Gurasoen Elkarteko ordezkaria) Azaroaren 24an, 20:00etan Ikasbide Kultur Elkarteant (Isabel II. hiribidean)
- **Droga menpekotasuna Askagintza** Azaroaren 25ean, 19:00etan Lugantz kultur etxean

Ipuinaren ordua

- **Ipuinxo bihurtuak** 3-5 urte bitartekoentzat Azaroaren 22an, 18:00etan Loiolako kultur etxean

Antzerkia

- **Sonata segundu batean... eta piku Tartean** Azaroaren 20an eta 21ean, 20:00etan Antzoki Zaharrean

Musika

- **Kamera digitalak Alboka** Joxan Galkoetxea eta Alan Griffin Azaroaren 25ean, 20:00etan Antzoki Zaharrean